

Session 2018

**CONCOURS DE RECRUTEMENT
DE PROFESSEURS DES ECOLES**

**« Concours Externe Spécial »
« Second Concours Interne Spécial »**

**Épreuve écrite
BASQUE**

Du mardi 10 avril 2018 de 14h30 à 17h30

Durée : 3 H - Coefficient : 2

L'usage des calculatrices et du dictionnaire est interdit.

Ce sujet comporte 4 pages numérotées de 1/4 à 4/4
Dès que ce sujet vous est remis, assurez-vous qu'il est complet.

Jakin nahiko nuke...

Gau-pasa eginik etxeratzean, kafea egina prest gelditzen ote zitzaidan dudatzen ari nintzela, halako batean, norbaiten urratsak hauteman nituen zanpa-zanpa ene ondotik. Itzuli nintzen; Sibulunbai zen, ene auzokoaren semea, edo xuxen idazteko --beti nahiago baitut gauzak diren bezala, erran ez bada, izkiriatu bederen--, ene auzokoek duela hamar urte adoptatu hamabi urteko mutikoa. Izugarri maite nuen Sibulunbai, haur biziki ernea, argia eta alegera zelako. Irriz ikustean, hain gustukoa nuen akeita baino ilunagoa zuen larrua hortz xuri-xuri dirdiratsuek are gehiago belzten ziotenean, egun osoa horretan berean zorion bihurtzen zitzaidan, amodioa ezagutu izan banu bezala. Baina Sibulunbai goiz hartan hurbildu zitzaidalarik, ohartu nintzen behingoan ez zuela batere irri egiteko gogorik. Besta luzeegiak itsustu zidan bisaiaren argitzeko indar bat eginez -gazte hezitzaile bati jadanik entzuna bainion helduok ez dizkiegula hurrei gure ahuleziak gehiegi agertu behar-, umore onez agurtu nahi izan nuen:

-Gau on Sibulunbai, edo hobeki erran, egun on! Etxera sartzen, hi ere, ala goizeko futina egiten ari hobeki iratzartzeko.

15 -Ez bata ez bertzea. Zure xerka nengoen. Zerbait galdegin behar dizut.

-Aa? Erraidak fite zer nahi dukan, ez diat izpiritua hain zorrotz tenore honetan eta lanera joan beharra nauk ahal bezain laster.

-Barka ene ausardia, baina nahiago nuke mintza gaitzen zure etxean, belarri kuriosengandik urrun.

20 -Aaa? Bon, sar gaitzen beraz, baina errazki ulertuko duk ez dudala asti anitz hirekin eleketan aritzeko...

Alabaina, ez nuen batere haur kalapita baten istoriorik behatzeko gutiziarik, are gutiago nerabeek maiz pairatzen dituzten aitamekilako tirabira horietako nondik norakoen entzuteko asmorik. Gertatu izan zen, bai, Sibulunbaik horrelako sekreturen bat nirekin parteka zezan, seguru aski ez baitzuen bere adinekorik gure auzo ttipian eta oraindik argitu ez dudan arrazoi ilun batengatik, nahiz bera baino puska bat zaharrago nintzen -kasik haren ama nintzatekeen- eta hurrekiko harremanetan batere alderdirik ez neukan, preziatzen ninduelako. Baina egun hartan, bertzerik banuen pentsatzeko, edo hobeki erran, adimena zentzordatu¹ nahi zidan burrunba jasangaitz batek betetzen zidan izpiritua, eta ez nuen ene burua gai sentitzen Sibulunbaik erran gogo zidanaren ulertzeko. Garajera sartzean eta zakur gosetuak batzarre egiten zigula, aharrausi bat irentsiz, labur mintzatu behar zuela konpreniarazi nahi izan nion:

-Has hadi, mutikoa, nehork ez gaitik entzunen, baina itzuli-mitzulirik gabe, ez baitut hainbertze denborarik.

35 -Orduan hara, xuxenki erranen dizut: duela bortz hilabete, ereiarioaren² zazpian, ene hamabigarren urteburuko, aitamek lehen aldiko kondatu didate non eta nola adoptatu ninduten. Sumatzen zuten anitz maite ditudan arren, eta elkarrekin nehoiz aipatu gabe ere, jakin nahiko nukeela nor diren bizia eman zidaten gizon eta emaztea. Erran didate Dakarreko umezurztegi nagusitik heldu naizela, handik hona ekarri nindutela bi urte nituelarik, eta menturaz, nire izenaren arabera, Casamanceko Joola leinukoa nintekeela. Bertze xehetasunik ez zuten erdietsi ahal izan nire jatorriaz, eta umezurztegiko zuzendariak segurtatu zien arrunt familiarik gabekoa nintzela. Bizkitartean, nekez sinesten dut hori, betidanik daramazkidalako gogoan hango irudi eta soinu batzuk, batez ere haur

¹ zentzordatu: nahasi

² ereiario: ekain (Senpere aldean)

45 eta emazte irri ozenak. Umezurztegikoak ote ziren, ala haurride eta amarenak? Nola jakin zinez haur galdua nintzenek ala nahigabe baten ondorioz urte bat edo bi nituenean ahaideek abandonatu nindutenez? Lehenago ere ari zitzaizkidan zurrumbiloan galdera horiek burumuinean, baina orain oharturik aitamengandik ez dudala laguntzarik lortzen ahalko deus guti dakitelako, ez naute lo egitera uzten...

50 -Gaizo haurra, hire kezkak hunkitzen naik, baina zer egin dezaket hire laguntzeko? -ihardetsi nion zaintsuki, ohartuz ez nuela kaferik prest eta barurik joan beharko nuela lanera.

55 -Nahiko nuke ene egiazko aitamen hatzak bila eta aurki ditzazun, ikus eta eleka ditzadan bizi baldin badira, edo bertzela, posible balitz, gutienez ahaideren bat atzeman diezadazun, jakin dezadan azkenean ene familiaren historia, uler dezadan nor naizen... [...] Horretarako zuri pentsatu dut..., baitakit zertan ari zaren eta ene gustuko detektibe baten lana ederki egin baizenezake...

60 Tentetu nintzen. Bat-batean, adimena bere lekuan jarri zitzaidan berriz: mukizu horrek asmatua ote zuen zein korporaziotan egiten nuen lan? Edo nitaz trufatzen ari zen? Erasia aire bat hartu nuen, kopeta ximurtu eta haur maitagarri haren ordeztasun gaztetxo argel bat bailitzan ene parean, begietan zorrozki begiratu nuen:

-Zer diok mutikoa?

-Bai, badakit polizia-emaztea zarela -zure soinekoa begiztatu nuen behin lisatzekoak zenituen xuriketa otarrean- eta horregatik laguntza eskatzen dizut.

65 Ortzia! Nolako ezbeharra! [...] Zernahi gisaz, hauturik ez nuen, argi zegoen:

Sibulunbai ez banuen laguntzen, herritarrei salatuko zien polizian ari nintzela lanean.

-Akort, Sibulunbai, etzakala negarrik egin, hire aferaz okupatuko nauk. Haugi berriz etxera sarri arratsean, ahal baduk, eta antolatuko gaituk... Baina hitzik ez nehorri, aditu duk?

Daniel LANDART-ek ETXEA ETA ETXEEKOAK euskal literaturan – (Euskaltzaleen elkarteak, 2015) istorio bildumako hautatua, Katixa DOLHARE-CALDUMBIDEn Biribilgune – (Elkar, 2014) liburutik

COMMENTAIRE GUIDÉ

Testu honen azterketa eginen duzu gogoeta-ardatz hauetatik abiatuz:

1. Sibulunbaien familia egoera.
2. Narratzailearen izaera.
3. Sibulunbai eta bere auzoaren arteko harremana.

TRADUCTION

Testuan belzturiko pasartearen itzulpena egin ezazu, 35. lerrotik 44. lerrora: « *-Orduan hara, xuxenki erranen dizut ... haur eta emazte irri ozenak. »*